



Lehiaketaren Oinarriak

HEALTH IDEA FLOW - 2021

Laguntzailea:



Bizkaia
orekan
sakonduz

Kolaboratzaileak:



Bexen medical

AURREKARIAK

Ekintzailtza teknologikoko proiektu askok ezagutza anitzaren beharraren ondorioz eta ideia prototipo edo industrializazio fasera pasatzeko beharrezkoak diren instalazio eta ekipamendu berezien beharraren ondorioz zailtasunak izaten dituzten proiektuak garatzeko edo eta beharrezkoa den garapen abiadura emateko. Osasun sektorearen ekintzailtza proiektu ugari ere ezaugarri hauek betetzen dituzte.

Azaro Fundazioak www.azarofundazioa.com eta Leartiker Zentro Teknologikoak www.leartiker.com , beren aldetik, osasunaren sektorean negozio berriak sortzeko gaitasun espezifikoak garatu dituzte azken urteotan. Arlo honi lotutako ezagutzaren garapena eta berriazko izaera duten egiturak, hasten ari diren osasun sektoreari lotutako ekintzaileen esku jarri nahi dira arrisku teknologikoa gutxitzeko asmoarekin eta merkatuan bideragarria den ikusteko aukera eskainiz.

Beraz, Osasun sektorean ekintzailtza sustatu nahian, lehiaketa hau abiarazi da. **Osagai polimeriko handia duten gailu medikuak ideia edo eta dagoeneko lehen prototipo gisara duten bakarkako edo eta taldeko ekintzaileentzako da eskaintza.**

Oinarri hauen helburua, Proiektu idea berriak hautematea eta sustatzea helburu duen lehiaketa honen aurtengo edizioa arautzea da.

HELBURUAK

Lehiaketaren helburua hurrengoa da:

Osasun arloan, oinarri polimeriko handia duten gailu medikuak dituzten ekintzailtza proiektu berritzaileak aukeratu eta sustatzea hurrengo modalitatetan:

- 1. Modalitatea: **Idea berritzaileak:** ideiatik prototipora heltzeko beharra duten ekintzailtza proiektuak
- 2. Modalitatea: **Prototipoaren industrializazioa:** prototipoaren lehen eredu bat izanda hau hobetu edo eta industrializazio fasera prestatzeko beharra izan dezaketen ekintzailtza proiektuak aukeratzea da.

Terapia aurreratuekin lotutako proiektuak lehenetsiko dira.

Hala nola lehiaketa honekin ere hurrengo helburuak lortu nahi dira:

- Osasun-arloan ekintzaitza bultzatzea
- Pertsona ekintzaileak antzematea
- Ekintzaitza kultura hedatzea

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lehiaketa honetan parte hartu dezakete:

- Pertsona ekintzaileak bakarka edo eta taldean
- Parte hartzaile bakoitzak bai bakarka edo taldean eskaera bakar batean parte hartu dezake
- 1. modalitatean prototiporik ez izatea
- 2. modalitatean prototipoa etapa komertzialean ez egotea (ikus 3. Atala - Modalitateak)
- Inskribatzeko unean, enpresa bezala sortuta badago salmentarik ez izatea

MODALITATEAK

2 modalitate ezberdinduko dira:

- 1).- Proiektu idea bat
- 2).- Prototipo hobekuntza/ Prototipotik industrializazio fasera pasatzeko proiektuak

SARIAK

1. modalitatea: Proiektu idea bat daukaten proiektuak:

- Prototipo kontzeptualaren garapenean **aholkularitza:**
 - Laguntza gailu medikoen diseinu espezialisten eskutik
 - Material egokienak hautatzeko aholkularitza

- Prototipoaren fabrikazio 3D inprimaketan (produktu motaren arabera)
- Prototipo kontzeptualaren kontrastea sektoreko adituekin
 - Mediku-profesionalak
 - Erregulazioko profesionalak
 - Enpresa fabrikatzaileak eta merkaturatzaileak
- Negozio ikuspuntutik **proiektuaren garapena bideratzeko azterketa**
 - Merkatuaren ezaugarrien inguruko lehen hurbilpena
 - Merkatuko eskaintzaren analisiaren lehen hurbilpena
 - Balio proposamenaren lehen hurbilpena
- **Bizkaiko ekosistemarekin harremana** eta proiektua ezagutarazteko aukera
- Lan gunea Lea Artibai berrikuntza ekosistemako inkubadorean (hautazkoa) ¹
- Ostata mantenu osoarekin 4 hilabeteko epealdian Lea Artibai berrikuntza ekosistemako egotetxean (eskualdetik kanpoko ekintzaileentzat) (hautazkoa) ¹

2. modalitatea: Prototipoa garatuta daukaten proiektua:

- Aholkularitza prototipo kontzeptualaren garapenean
 - 40 ordu gailu medikoen diseinuan espezialistekin
 - Material egokienak hautatzeko aholkularitza
- Prototipo funtzionalaren garapena
 - Moldearen diseinua
 - Moldearen kudeaketa (ez da diruz lagunduko moldearen prezioa)
 - Eskaintzen kudeaketa
 - Moldearen jarraipena
 - Laginen injekzioa sala garbian, betiere moldearen tamainaren arabera (ez da materialaren prezioa diruz lagunduko)
- Prototipoaren kontrastea sektoreko adituekin
 - Mediku-profesionalak
 - Erregulazioko profesionalak

¹ Hautazkoak diren sariak onartzen ez badira, hauen balioa ezingo da beste sari batera gehitu

- Enpresa fabrikatzaileak eta enpresa banatzaileak
- Negozio ereduak sakontzea:
 - Lehiakideen bechmarking-a
 - Bezero potentzialen identifikazioa eta, plan ekonomiko finantzarioa edo eta bideragarritasunari lotutako beste behar batzuk.
- **Bizkaiko ekosistemarekin harremana** eta proiektua ezagutarazteko aukera
- Lan gunea Lea Artibai berrikuntza ekosistemako inkubadoran (hautazkoa) ¹
- Ostaturia mantenu osoarekin 4 hilabeteko epealdian Lea Artibai berrikuntza ekosistemako egotetxean (eskualdetik kanpoko ekintzaileentzat) (hautazkoa) ¹

Oharra:

- Epaimahaiak parte-hartzaileei deitzea posible izango da beraien proiektuak defenda ditzaten.
- Aurkeztutako egitasmoen maila baxuegia dela erabakiz gero, sariak ezerezean geratu daitezke.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Azaroko web orrian eskegita dagoen Fitxa Teknikoa

BALORAZIO IRIZPIDEAK eta EPAIMAHIA

1. Proiektuen baloraziorako irizpideak hurrengoak izango dira:

- Ekintzailearen (taldearen) profila
- Ideiaren bideragarritasuna
- Ideiaren garapen maila
- Ideia/Produktuaren izaera berritzailea
- Ekintzaileen proiektua proiektuarekiko
- Garatzeko, hazteko eta enplegua sortzeko duen potentzialitatea

¹ Hautazkoak diren sariak onartzen ez badira, hauen balioa ezingo da beste sari batera gehitu

- Terapia aurreratuetan landutako proiektuak puntuazio gehigarria izango dute
- Bizkaian inpaktua sortzen duten proiektuek puntuazio gehigarria izango dute

2. Epaimahaia hurrengo entitateek osatuko dute:

- Azaro Fundazioa
- Leartiker
- Bexen Medical
- Basque Health Cluster

EPEAK ETA LEKUA

- Proiektuak aurkezteko azken eguna: **2021/12/12**
- Proiektuen fitxa teknikoa hurrengo emailera bidali beharko da aurreko data baino arinago:

azaro@azarofundazioa.com

- Irabazlea ezagutaraztera emateko epea: **2021/12/22**. Partehartzaile guztiei email bat bidaliko zaie, irabazleak izan diren edo ez esanez. Ondoren, publiko egingo da irabazlea.

**Eskabideren bat osatu gabe aurkezten bada, interesdunari eskatuko zaio astebeteko epean akatsak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak onartzeko. Hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta artxibatu egingo dela, besterik gabe.*

DATUAK BABESTEIA

Datuak babesteari buruzko legeak betetze aldera, zure berariazko baimena behar izango da zure datuak tratatu ahal izateko. Datu horiek konfidentziasun handienarekin tratatuko dira, eta bildu diren xedea bete ondoren ezabatu egingo dira. Halaber, baimen hori deuseztatu ahal izango du edozein unetan, bai eta datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko, aurka egiteko eta/edo eramateko eskubideak baliatu ere, AZARO FUNDAZIOA Xemein hiribidean (12-A, 48270, Markina-Xemein,

Bizkaia) idazki baten bidez. (Datuak babesteari buruzko informazio gehiago www.aepd.es helbidean).

Zure datuen eta/edo irudien tratamenduaren helburua da izena emateko formularioan deskribatutako prestakuntza-ekintzan hura sartzeko beharrezkoak diren kudeaketa eta izapideak egitea, arrazoi estatistikoak, sustapen- edo merkataritza-komunikazioak edo -bidalketak mantendu ahal izatea eta ditugun hedapen-kanaletan (sare sozialak, argitalpenak, etab.) erabili ahal izatea.

Hortaz, lehiaketan parte hartuz gero, parte-hartzaileek bere datuak eta irudiak tratatzeko baimena ematen dutela ulertuko da.

KONFIDENTZIALTASUNA

Azaro Fundazioak konpromisoa hartzen du aurkezten diren proiektuen konfidentzialtasuna bermatzeko.

OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzen direla esan nahi du, hala nola antolakuntzak edo epaimahaiak onartzen duen edozein ebazpen.

INFORMAZIO ZABALAGOA ETA IZEN EMATE ORRIA

www.azarofundazioa.com

azaro@azarofundazioa.com

94 616 91 72

BULEGOA:

MARKINA-XEMEIN: Lea-Artibai Berrikuntza Gunea

Xemein Etorbidea, 12-A